



TAO-RI BURUZKO OHIKO GALDERAK

Non aparkatu dezakete Egoiliar-txartela duten ibilgailuek parkimetroan ordaindu behar izanik gabe?

Egoiliar-txartela duten ibilgailuek mugarik gabe aparkatu dezakete egoiliarren aparkalekuetan (txuria) eta errotazio arrunteko aparkalekuetan (urdina) berari egokitutako zonen barruan.

Zein da Egoiliarren zonaren ordutegia?

Egoiliarren zona txuriak urte osoan funtzionatzen du (urteko 365 egunetan, eguneko 24 ordutan).

Zenbat balio du Egoiliar-txartelak?

Egoiliar-txartel orokorrak 35 euro balio ditu.

Eskatzaileak 2020. urtean lortu bazuen txartela, %20ko deskontua izango du 2020ko tarifaren gainean, COVID-19aren ondorioz zerbitzuak izan zuen etenaldiagatik.

Gainera, Egoiliar-txartelaren titularrak ordainagiria helbideratzen badu edo helbideratuta badauka %5eko deskontua izango du 2021. urteko tarifaren gainean.

Bi deskontu horiek pilatu egin daitezke.

Ez naiz Zarautzen bizi, baina Zarautzen lan egiten dut; lortu al dezaket Egoiliar-txartela?

Bai. Horretarako, hauek aurkeztu behar dituzu TAO bulegoan: lan-kontratua, NANA eta ibilgailuaren zirkulazio-baimena. Eskaera onartu ondoren, udako lau hilabetetarako baimena lortuko duzu (ekaina, uztaila, abuztua eta iraila).

Egoiliar-txartelarekin aparkatu al dezaket nirea ez den egoiliar-zonan?

Ez. Ordenantzaren idazketa berrian kendu egin da aukera hori (alegia, egunean behin libreki aparkatu ahal izatea gehienez ere ordubeteko iraupenean).

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga herrian ordaintzen duten ibilgailuek abantaila hauek izango dituzte:



TAO-RI BURUZKO OHIKO GALDERAK

1. Lehen 30 minutuak dohainik errotazio arrunteko aparkalekuetan (urdina).
 2. Egunero, 13:00etik 16:30era bitartean ez dute tasarik ordainduko.
- BETI atera beharko da tiketa (parkimetroan edo Arinpark app-ean).

Nola baliogabetu dezaket isun bat?

Arau-hausleak isuna baliogabetu ahal izango du udalerriko edozein parkimetrotan, mugikorreko app-aren bidez (Arinpark) edo aurrez aurre (TAO bulegoan). Isuna ordaintzeko, 2 orduko gehienezko epe bat dago, arau-haustea egin denetik kontaktzen hasita.

Orain Salberdineko aparkalekurik ez dagoenez, non aparkatu dezakete 1 zonako egoiliarrek, bere zonaz gain?

1 zonako egoiliarrek libreki aparkatu ahal izango dute aintzinako Messil fabrikan egokitutako partzelan (orain Salberdin parkina izena du).

Aurten, berritasun gisa, 1 zonako egoiliarrek 2 zonarako Egoiliar-txartela eskatu ahal izango dute, 1 zonako bereizgarriari uko egiten badiote.

Noiz berritu behar da Egoiliar-txartela?

2020. urteko Egoiliar-txartelak ekainaren 25ean galduko du bere balioa. Txartel berriak (2021) urte bukaera arte edo 2022an berritzen den arte balioko du.

Egoiliarrek ordaindu egin behar al dute Errotazio Handiko zonetan aparkatzeko?

Bai, baina igandetan, jaiegunetan eta larunbatetan (13:00etatik aurrera) Errotazio Handiko gunetan aparkatu ahal izango dute, tasarik ordaindu gabe.